



ZORGINĀK

Iraġa'ko gau oskarbiya zan. Lizaġondo'ko Mikeletxo, ames txafaren izuak esnatuta-edo, bat-batian oetik jeiki ta zer garaitan arkitzen zan igefi nairik, bere gelako le-yora atera zan. Ezeren gogaġpen-gabe, begitu zuan etxiaren azpikaldian ilunpian uts-une aundi bat bezela ageġtzen zan itxasora, ta oskarbiaren eragiġna-edo, sofġkaldian leġo argi batzuk iduritu zitzaizkiyon; ta egun-sentiya zetofelakoan, geyagoko gabe, geġtatu zan mendira juateko, oi bezela, ta eguzkiya ateratzen zanerako, bere ardurapean zeukan artaldea txabolatik ateratzera.

Jetzi zanean sukaldera, supazteġian zitun abarkak jan-tera, basetxia ixil-ixil zegon. Mikeletxo'ren sendiya lo zegola ba-zirudin, egun beġiaren ardura-gabe. Kortako aberiak etziran somatzen iġoiz bezela maġuzaz etxeoak esnatu nairik, len-bai-len beretara jetzi zitezen; baġian guzi onek etzuan aġitu artzaine goiztaġa, oitua zegolako bein baġo geyagotan etxeoak mugitu baġo len ateratzen.

Atadiyan «Aitaren» eginda, abiatu zan ardiyetara. Bidian etzuten, bestetan bezela, beren abestiakin aguġtu txoritxuak eta onek zertxobait aġitu zuan, baġian alaz guzi az jaġaitu zuan.



Alabaġian, beaġfekoa zuan «Zoġgin-zulo» zertizan sakon bat igarotzia, ta onexek ardura ematen zion. Bestetan, bertara orduko, eguzkiya jeikiyaz, argi topatzen zuan; baġian egun ortan uferatuaz zijoan eta bera etxetik irten zanian bezin ilun gabak jaġaitzen zuan.... egun beġiaren alairiz ez.

Ingurutzaġo baseġitaġak bezela, Mikeletxo'kere bilduġ aundiya ziyon sakon oni. Esaten zuten ez, bertan biltzen ziran gaubero, inguruko zoġgin guziyak batzaġ egiteko; ta esaera au egiztatzen zuan, baseġitaġak ziyotenez, bertatik ateratzen zan oliyo-usayak. «Zoġgin-zulo»'tik igarotzian guziyak aġtzen zuten usai ori,

gogo-gaiztoak an biltzen ziran ezaugaġi zuzena.

Ofengati, ba, toki ontara eldu ta ilun arkitzian, zerbait ere izutu zan. Begiratu zuan ortzera ta izafak aġtian dist.... Bereala an uġeko baseġi bateko txadon-erloyuak amabiyak jo zitun. ¡Gaberdiya ta «Zoġgin-zulo»'n! Neskatxa gaxua ziara ikaratu zan. Ba-zijoan laisteġka beġiz etxeruntz bidia aġtzera; baġian une bertan, zalaparta aundiya entzunik, itzal beltza bere ondoan ikusi zuan.

¡Zoġgin bat! Eta Mikeletxo egundoko azġafen, lenbizi aġapatu zuan zuaitzera igo zan.


An zegon zuaitzan igota, abaġai elduka, arnasa aġtze-ko ere bilduġez; noiz-baġo-noiz bera zegon tokira zoġgiġna igoko. Baġian etzan onen beġirik: ba-zirurian luġak iruntzi zuela.

Gaiztoa, lenen eldu zanen toki artara batzaġ egiteko, ixil-ixiġik bere lagun en zai zegon.

Bitaaġtian, artzaġa ere zuaitzian, zoġgin-aldra aundiya leku artan bildurik ikusteko ustian. Bilduġ-ikaraz zegon. ¡Zer izango zan berezaz gau izugaġi artan!

Baġian bai-zijoan denbora; jo zuan erloyuak ordu bata, ta ezeren beġirik ez; jo zitun ordu biyak, ezta. Onela Mikeletxo zerbait ere pozlutzen, adorea aġtu zuan. Baġian beġiz ere zerbait zalaparta somatu zuan; gero ixiltasuna... Ba-zirudin zoġgin gaiztoa, lagunak ageri etziranean, andik alde-egin zuala.

Txoriyen lenengo abestiyakin artzaġa alaitu zan. Izafak ilunduaz zijoazten...; uġen «Zoġgin-zulo» alaitu zan egun-sentiya ren argiz. Eta toki artan zoġgin-antzik etzala ikusi zuanian, zuaitzetik jetzi ta ardiyetara zan.



Orduko beste artzaġak beren artaldiakin ateriak ziran;

eta Mikeletxo'ren ardiyak txabolan mafoizka ari ziran, artzañaran etoferari luze iritzita.

* * *

Udazkeneko gau euritsua zan. Lizafondo'ko mandioan, arta-pilaren inguruan lufian exerita, bertako sendi ta auzoetako gasteak bildurik, gogof arta-zuritzen ari ziran. Zeñek-baño-zeñek artaburu zurituz lenago otzara bete, etzan antxen alajaña alpef-usairik. Ta era guzitara lan-egiteko, mingañak ere ederto zebilzkiten. Autua ta ipuya ba-zebilen an.

Norbaitek aitatu zitun zorgiñak, eta abek aitatu-ekzero beafeko zan «Zofgin-zulo»'tzaz jardutia. Bakoitzak ba-zekian sakon ontako geftakizun baten befi. Mikeletxo'ri ikara ematen zion sakon au aitatzia bakafik. An zirane-tako mutil gaste batek, bañan, etzuan ziñesten bestien zofgin konturik. Txomin zeritzan beste mofosko batek, zorgiñak zirala egiztatu nairik, eta ganera aitatutako sako-nean biltzen zirala, edestu zuan berari geftalutakoa: Gau baten, gexorik zegon auzokide bati lagun-eginda, etxer-untza zetofan eta toki ura igarotzian emakume bat aufkitu zuan; eta gabez ta bakafade artan zebilen emakumiari alde onekua iritzi ez ta, zuait batera igon eta goizalde-afte egon biaf-izan zuan.

Mikeletxo'k au entzunda itandu zion zein gautan jazo zi tzayon ori, ta elkar-aiturik ikusi zuten, biyak, bata-bes-tea zofgin irudituta, elkafen bildufez, zuaitz banatan gaba igaro zutela «Zofgin-zulo»-n.

Algara gozorik egin zuten Lizafondo'ko arta-zuritzaleak.

TENE.



Astakilo'ren emaztia emakume zindua ta langilia zan, baña batez gozo-zalia be. Oni geyen-geyen gustetan yakona txokolatia zan.

Bein aizkide baten etxera juan zan. Eta etxeko andereak itandu eutson geure gixonaren emaztiari:

—Zu, Katarine; txokolatia jzelan gura dozu? Bizkotxo ala ogijaz?

—Egija exateko, kolariagaz gurago dot— pipeña baño serijuago erantzun eutson Astakilemiak.



ORAIN BAI-NUAZV

(ZUBERO-ABESTIJA)

Poco mosso

Or-ain bai-nu-a-zv he-i-tik ar-dra-
 di-zvt nu-gai-a be-gi-tik. Or-ain bai-nu-
 a-zv he-i-tik ar-dra-di-zvt nu-gai-a be-gi-
 tik Bat maitha-te nu-an go-go-
 tik, bi-ho-tar-en er-di-er-di-tik;
 al-de-gin be-hai-di-zvt e-tun-ke, al, al!
 nu-la bi-zu-ko nu ne!

Orain bai-nuazv heritik:
 ardyra dizvt nigara begitik.
 Bat maithatv nian gogotik,
 bihotzaren erdi-erditik;
 alde-egin behar dizvt ilunki
 ¡Ai! ¡ei! gnula biziko niz ni!

Ene mañtioi, orain nik
 jakin nahi nyke zvganik
 zerk zadykan hoñen itunik,
 so eztiak oro galdvrik;
 ala dvzvntez beldvrvknterik
 maithatzen dvdan zvtaz besterik

BIRAU A

Asko ta asko dira giza-aftian ikusi ta aditzen diran gauzak kezka ta iguña aftu-eragiten dutenak; baño niretzat beñepein guziyen aftian goren-gorenetakua da birau andi bat aditzia.

Ba-dírudi gizonen gaitz guzia eztala deus ere gaizta-keri ain aundi ta muga-bako onen ondoan; eta gaiztoki edo *inpernuko* gogo zital utzak danaz bat egiten dula gora ta gora igo, Egile Aundiaren aufian jarri ta Berari esateko birau ikaragafi bat.....

¡Eguzki, itxaso, ilargi ta izafak egiteko ainbat almena duanari, utsa biuftuko dan batek ofelakorik esatea!

¡Nayago nuke niri seme bat zoro-etxe baten zapi zaf bategaz bere aragiak estali ta guraso baten biotza miñaren miñez zatitzen duten gauzak egiten ikusi, ta baita eriyotz-oian galtzerdi zuriakin bere kurutzetxua eskuan duala, oituraz liraularia izatia baño!

AKATZAK.